



# NERE KALEA

(Santa Maria kaleko kaletar deneri)

## OLASKOAGA

Nork ez du bere kalea maite? Errian bizi geranok erriko zati dan kalea maite izaten degu. Nola ez ba? Bertan egin bai genitun len dabiziko ibillaldiak, baita ere gure lenengo korrikaldi eta jolasak. Badideteki kalea ederra ez izatea... Ala ta guziz ere, beti biotzean daramakigu. Jaio berriak, bertatik eraman giñuzten Eleizara kristau egitera; bertatik eskolara lendabiziko lerroak eta zer edo zer ikastera; bertan bizi nai degu eta bertan amaitu gure mundu ontako izaera. Erbestera joan bear izaten danean ere, beti oroitzen dira kale zarrean igarotako egunak.

Au onela izanik, gaur nere kale motx eta extuaren gauzatxo batzuek azaltzera noa: ezin ukatu beraren maitalea naizela, eta bertan dagozten gauz asko, nerretzat oso gogoangarriak dirala. Nere kalea, Errenderi'ko kale zarrenetakoa da. Eleiz ondoan, Zeruetako Ama'ren izena darama apaingarri bezela, eta bere inguruan beste lau edo bost kale zar eta berdintsuak dauzka. Erriko-etxea ere gertuan. Zerbait jai edo pesta danean, gure kalean zear igaro bear. Jai goizetan, txistulariak ere bere soñu alaiari, bertan ematen diote asiera, erriari jaia dela adierazi naiean, betiko oitura zarrari jarraituaz.

Zer du ba nere kale extu ta motx onek? Orain urte mordoxka batzuek, alaiagoa zan. Umetxo giñanean, udara denboran, inular aldean egonaldi goxo askoak

egiten genituen soto bazterretan... Bertako amona maita garri batek, bere alaitasun arekin, zenbat aldiz esaten zuan «calle de la lechuga» zala gure kalea. Izan ere, atsegiña edozein garaitan; eguzkirik ez baida sartzen bertan. Balkoitik balkoira beste izketalditxo bat egiteko ere, ez da oju aundirik egin bear. Sendi bat bezela gera bertan guztiok. Denda ugaririk ez izan arren, asi mutur batetik eta besteraño, bear diran gauza geienak bertan badauzkagu.

Aldaketa gutxi izan dira bertan aspaldian. Kale bukaeran, Mendartze zanaren pasteleriko labea zegon tokian, etxea berritu da. Ikullu illun antzeko etxe zar baten orde, orain beste etxe bat, azpian, «Garbi», denda apain eta txukuna duala. Zaldi ta abereak egoten ziran beste lekuan, «Urdaburu Mendizale Taldeak» dauka bere elkartea.

Gañerakoan aldaketa gutxi egin du nere kale onek. Egunez paketsu, bañan gauez, noizian noiz, izaten ditugu oso yayuak ez diran abeslariak, beren oju ta ixkamillekin bertakoei paketsu egoten uzten ez ditugutenak.

Auxen da nere kalea nerretzat. Bañan beste gauz bat ere badu nere kaleak, ta oso ezaugarri dana. «Boni'neko» alpargata aundia, danok ezagutzen daguna. Urteak igaro arren, ortxen dago kaleko ertzain bezela gau ta egun; zenbat iseka ta parra egin dizkitzute zuri, gure ertzaien maite orreri! Zenbat apustu, bai egunez ta baita gauez zu aintzakotzat artuta! Zu zeradela dimediyo, makiña bat egonaldi egin dira zure azpian. Ala ta guziz ere, beti ortxen zaude. Gure kalea non dagoen esateko, guk ez degu besterik esan bear: Eleiz ondoan alpargata aundi bat dagoen kalea, ura da gure kalea.

Konponketa batzuek egin ta ittotti eta tellatuen urbildu lekuak zuzendu ezker, oraindik ere kalea txukuna egongo litzake.

Saia gaitean kaletar danok beti bizi izan geran bezela elkar maitasunean bizitzen. Emen jaio ta beste leuetan bizi zeratenok, jakin beti gure elkartean zaudetela. Guztikoi Erriko jai auek alai ta paketsu igarotzea opa dizuet. Eta gure kalean batetik bestera zabilzaten, agur bero bat egiotzute gure ertzainari, eta otoitz bat gure Zaindari dan Zeruetako Amari, betirako utzi ginduzten kaletar guzien alde.

*Kale txikia zu zeradela beñere ez dut ukatzen*

*Bañan nerretzat berdin gabea zeradela det aitortzen.*

*Zure arritan ume nintzala ikasi nuben ibiltzen*

*Orrengaitikan biotzetikan beti nik zaitut maitatzen.*